



# Bi milioi euro itzuli behar ditu Udalak

Egoera "larriari" erantzuteko prest direla jakinarazi dute Pablo Barrio eta Estitxu Alkortak

Lasarte Oriako Udalak bi milioi euro itzuli behar dizkio Foru Aldundiari 2012an, baina Pablo Barrio alkateak eta Estitxu Alkorta Ogasun saileko buruak asteazkenean prentsurrekoan adierazi zuten, azken hilabeteotan ahalegin handia egin dute dirua aurrezteko eta epearen barruan ordaintzeko moduan da Udala. Udal ordezkariak jakinarazi zuten, Udalaren zerbitzu publikoetan ez da murrizketarik izango eta soilik inbertsio batzuek atzeratuko dira.

Udalaren ekonomiaren larritasunaren berri eman zuten Barrio alkateak eta Alkorta zinegotzietatik asteazkenean. Krisiaren eragina Gipuzkoa osoan bezala Lasarte-Oria ere "latza" dela esan zuten, baina arduraz jokatzeko ari direla, eta irailean lehen berriak izan zituztenetik ordaintzeari aurre egiteko dirua gorde dutela.

2011n aurre-ikusitako diru-sarrerak baino %12 txikiagoak izan ditu Foru Aldundiak eta beraz, Gipuzkoako Udalek aurten 50 milioi euro itzuli behar dizkiote. Konkrituki Lasarte-Oriak 1.258.224 milioi euro. Gauza bera gertatu zen

2009an eta orduan Udalek dirua hiru zatitan itzultzea hitzartu zen. 2012an bigarren epeari dagokiona ordainduko dute, Lasarte-Oriak guztira 814.273 euro. Beraz 2009 eta 2011koa gehituta 2012an bi milioi euro baino gehiago, 2.072.497, itzuli behar ditu Lasarte-Oriak.

## Zuhurtzia

Dena den, udal ordezkariak ustez ez da argi gorririk piztu, Udala ordaintzeta horiek Aldundiak ezarritako epe eta baldintzetan egiteko moduan da, baina hausnarketa "sakona eta eraginkorra" egiteko unea da. "Hausnarketa egiten



Zuhurtziaz jokatu du Udalak eta ordaintzeta egiteko moduan da.

ari gara eta zuhurtziaz jokatzen ere bai, are gehiago aurreko korporazioak utzitako azken momentuko sarpes-berriak kontutan hartzen baditugu". Bestek beste, Udalek berriaren sartzeko ordaindu beharreko 600.000 euro estrak eta Zabaletan obrak

egiteko konpromisoa hartu bai baina diru erreserbarik egin ez zelako behar diren 800.000 euroak.

Udal ordezkariak argi dute konponbideak ez duela "sekretu handirik", diru sarrerak murriztean gastuak ere murriztu egin behar.

Estitxu Alkorta jakinarazi zenez irailerako baziren gertatu zitekeenaren zantzuak, eta beraz ordutik ahalegin handia egin eta milioi bat euro gorde ditu Udalak. Bere esker daude egoerari erantzuteko moduan.

## Gogoeta garaia

Hurrengo urteetan diru-sarrerak nabarmen gutxitzea litekeena dela uste dute, eta Udalaren izenean Pablo Barriok egoerari buruzko gogoeta txiki bat ere plazaratu zuen: "Merkatuan oinarritutako ekonomiak bere benetako izaera azaltzen digu eta ezin gaitezke itsuak izan. Oraingo krisia ez da orain arte ezagutu dugun horietako bat, hau krisi sistematikoa da. Arlo guztietan inposatzen ari diren aldaketa murriztaileak ez dira pasakorrak, egiturazkoak baizik, irauteko jarriak, beraz. Etorkizunak ez du iraganarekin antz handirik izango. Honen guztiaren aurrean zer egin? Badugu hor gogoeta serio bat egiteko galdera".

## 3 EUSKARA

### Udalen hizkuntza-politika azteruko dute IV. Udaltopen

Laugarren urtez, Euskara zerbitzuen Udaltop topaketak Lasarte-Oria izango dira. Asteazkenean, Donostian egin zen aurkezpenarekin gaia "Nolako da gure hizkuntza-politika? Begiratu, mesedez, euskara sailetik kanpo" eta egitaraua aurkeztu zituzten topaketetako antolatzaileek.



## 4 POLITIKA

### Diru laguntzen afera epaitegietara eramango du udalak

Asteartean burutu zen ohiko udalbatzarra. Gai zerrenda zabalaren artean, EAJk aurkeztutako mozioa nabarmendu zen. Izan ere, honen bitartez urteetan Somotora bideratutako diru laguntzak ikertzeko erabakia hartu zuten alderdiek PSE-EE eta PPren abstentzioekin.

## 6 KIROLA

### LOKEko atleta gazteek domina sorta lortu zuten



FAG

LOKEko atletak junior, jubencil eta kadete mailako Euskadiko txapelketan parte hartu zuten lehengo asteburuan. Irati Larrañagak eta Maria Eugik urrezko dominak eskuratu zituzten, baina Lasarte-Oriakotaldeko kideek hainbat probatoko podiumean egotea lortu zuten.



# OTEGI

SAGARDOTEGIA  
SOLLAENEA BASERRIA

- Larunbata eta jai eguerditan irekita
- Asteartetik larunbatera gauero irekita

**Zabaleta auzoa ■ LASARTE-ORIA ■ Tel.: 943 365029**

Neure kabuz



Mailu Arruti

Baloreak galdu ditugu

Esaldi hau gehiegi erabiltzearen poderioz ez al gara balioz hustuzten ari?

Edozein notizia hartu, bai politika arlokoa, kulturakoa, kirolakoa, nazio mailakoa, nazioartekoa... berdin du. Komentarioek, konbersazioak, aise asko eraman gaitzake amaiera honetara: BALOREAK GALDU DITUGU!

Giza harremanen dendako katalogoan ikusi nahi dut zenbatean dagoen...

Xamurtasuna, baztarkeria, melankolia, ixiltasuna, gorrotoa, damua, alaitasuna, malxo ixuria, hipokrisia, elkartasuna.

Zenbat aldiz gogoratu duzu azken aldiaren klandestinitate egin zizuten parre-txiki hori?

Edo zuretzat bakarrik zen begi keinu hura?

Monopolio jokuan ari bagina bezala, bi kale erosi, garesti, hiru hotel eta bi etxe eraiki, errentak kobratzeko.

Maitasuna eta independentzia erosi, laztanak eta musuak kobratzeko.

Gezurra eta zitalkeria erosi, menpekotasuna eta baztarkeria kobratzeko.

Merkatuaren legean, eskaintza eta eskariaren balantza jokuan... gezurra merke, asko dagoenez, xamurtasuna garesti, eskasian bizi garenez, baztarkeria ugari, gurea uste duguna zalantzan jartzen duela.

Gure beldurren morroi garelako.

Nola onik atera amaraun honetatik?

Nola oreka mantendu marra makur hontan?

Bizitza bizitzeko behar ditugu baloreak. Ez ditugu "galdu". Batzuk baztertu, berriak hartu, lehenestu, ALDATU egin ditugu.

Zorion agurrak



Andrea

Zorionak laztana!! Hamaika muxu txokolatezkoak etxekoan partetik.



Marta eta Sandra

Zorionak bikote. Zortzi muxu handi aita, ama eta Hectorren partetik.



Lorenza

Zorionak zure 101. Urtebetetzean. Horrela mantendu familiaren partetik.




Lander

Zorionak polita! Familiaren partetik eta osabaren partetik hamar muxu handi.



Ane Bego

Zorionak eta ondo pasa zure urtebetetze egunean. Familiaren partetik



Irtari

Zorionak eta txokomarrubizko muxuak gure etxeko printzesa txikiari.



Oier

Zorionak bihotza zure 8. urtebetetzean. Ondo pasa. Muxu pila etxeko guztien partetik.



Garikoitz

Zorionak txapeldun. Zure aitak, arreba eta familia guztiak, egun ona opa dizugu.



Hodei

Zorionak bihotza. 4 muxu handi eta lakasito pila zuretzat.



Naroa

Zorionak makarrilla, 8 muxu handi Julen, aita-txo eta amatxoren partetik.



Suhar

Zorionak txapelduna! Aitaxo, amatxo eta Udanerren partetik. Ondo pasa zure eguna!

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo www.txintxarri.info web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

- Etxea alokatzen dut Zumaburuan. Hiru logela eta balkoia ditu. Partikularra naiz. Harremanetarako, 660 549 308
- Garaje marra bat alokatzen da Urbarten. Harremanetarako deitu 943 363 524 telefono zenbakia.
- Garaje marra bat alokatzen da Hipodromo etorbideko 10. zenbakian. Prezio negoziagarria 60 euro. Interesa dutenek 943 362 472 zenbakira deitu.
- Logela bila nabil, sukaldeak erabiltzeko eskubidearekin eta ahal izanez gero errolda aukerarekin. Harremanetarako zenbakia, 626 256 051
- Bi logelako etxea salgai Hernani erdian. Hamabost urte ditu. Harremanetarako deitu 685 369 952

Lan-eskariak

- Pertsona helduen zaintzarako erizaintza eta geriatrian trebatua den gaztea eskaintzen da. Interesatuek 679 526 305 edo 943 536 208 telefono zenbakira dei dezatela.
- Pertsona adinduek zaintzeko emakume eskalduna eskaintzen da. Harremanetarako zenbakia, 654 763 886.
- Emakume eskalduna, arduratsua eskaintzen da arratsaldetan lan egiteko haurrak zaintzen, garbiketak edo etxeko lanak egiteko. Harremanetan jartzeko: 677 356 413.
- Arratsalde 14:00etatik 19:00etara, emakumea eskaintzen da adinduek zaindu, etxeko lanak egin edota bestelako garbiketa lanak burutzeko. Esperientziaduna eta paperekin. 629 871 605 Mirna.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotza

• Danel Pascual Lopez, otsailaren 11n.



Heriotza

• Jose Iglesias Santos, otsailaren 15ean, 80 urte zituela.



Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltekinak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

<b>Ostirala, 17</b> De Miguel, Nagusia 32	943 371151
<b>Larunbata, 18</b> Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
<b>Igandea, 19</b> Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
<b>Astelehena, 20</b> Rodriguez, Nagusia 42 atzea	943 361774
<b>Asteartea, 21</b> Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
<b>Asteazkena, 22</b> Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
<b>Osteguna, 23</b> Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567

**GAUEKOAK: 22:00-09:00, egunero**  
Chula, Kardaberaz 48  
Hernani, Tel.: 943 551793

- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak edo helduak zaintzeko. Orduka edo egun osoz eta lurraldeko edozein tokitan. Harremanetarako zenbakia, 674 803 688.
- Neska arduratsua eskaintzen da orduka lan egiteko, pisuetan, garbiketa lanetarako, pertsona heldu eta haurren zaintzarako eta etxeko lanetarako. Telefono: 648 243 984
- Emakume arduratsua eskaintzen da orduka lan egiteko, pisuetan, garbiketa lanetarako, pertsona heldu eta haurren zaintzarako eta etxeko lanetarako. Harremanetarako, 653 319 644.

Salerosketak

- Daewoo Lanos kotxea salgai 650 eurotan. Tel. 672 113 451

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako Udala**  
Euskara Batzordea



**EUSKO JAURLARITZA**  
KULTURA SAILA



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



Udaltop antolatzen duten erakundeetako ordezkariak aurtengo jardunaldietako aurkezpenean.

UDALTOP

## EUSKARA

## Udaletako euskara erabilera aztertuko du Udaltop

Manuel Lekuonan martxoaren 28 eta 29an izango dira jardunaldiak

Udaletako euskara zerbitzuen IV. Topaketa aurkeztu zen asteazkenean Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean. Euskara teknikarientzat zuzenduak dauden jardunaldiak beste urte batez Manuel Lekuona Kultur-etxean izango dute lekua. Oraingoan martxoaren 28 eta 29an izango da.

Jardunaldietan antolakuntza lanetan dauden erakundeetako, Lasarte-Oriako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza politikako sailburordetza, Eudel eta Kutxabankeko ordezkariak izan ziren bertan.

### Udalak aztergai

Aurtengo gaia Udaletan erabiltzen den hizkuntza-politika izango da.

Andoni Busquet Eudeleko ordezkariak herri erakundeek euskararen erabilera soziala sustatzeko aurrera daramaten politikaz hausnartzea eta eztabaidatzea komenigarri dela adierazi zuen prentsaurrekoan.

Era berean, euskara zerbitzuetatik euskararen erabilera soziala hedatzeko lan itzela egiten dela azpimarratu zuen.

Patxi Martinez de Marigortak Eusko Jaurlaritzako ordezkariak euskara zehar-lerro bat dela adierazi zuen, "hizkuntza-politika zehar-lerro bezala ulertu behar da. Erakunde osoari dagokio, baita gizarte osoari ere, ez bakarrik sail edo zerbitzu jakin bati".

### Jardunaldiak

Gauzak honela, Euskal Herriko euskara batzordeetako tek-

nikariak Lasarte-Orian bilduko dira martxoaren 28 eta 29an.

Bi egun hauetan, aipatu legez, Udaletan erabiltzen den hizkuntza-politika aztertuko dute eta ia bezala, hausnarketari beste ikuspuntu bat emateko Euskal Herriko hizlariak gain, kanpokoak ere etorriko dira, hala nola, Bernat Joan i Mari filologo katalana.

Boris Nogales Lasarte-Oriako Euskara batzorde buruak izena ematea hilabetez irekia egongo dela eta matrikula [www.udaltop.com](http://www.udaltop.com) web orrialdearen bitartez egin behar dela gogora arazi zuen.

Honetaz gain, antolatzaile guztiak eskertu zuten "garai zail hauetan" Kutxabank-ek proiektu hau babestea.

## INGURUGIROA

### Aparkalekuak Hipodromo etorbidean

Hipodromo etorbideko bizilagunek eskaera bat egin dio Udalari, Murias enpresak Osasun Ze nro zaharrean zegoen lur saila garbitu eta aparkalekua jartzea.

Elkarteko kideek azaldu digutenez, "egun lur sail hori itxia dago eta barruan hondakindegia bat dago".

Horregatik, eremu hori garbitzea eskatzen dute eta bertan kotxeak utzi ahal izatea, Beheko kaleko aparkalekuaren antzera. "Herrian arazo larria da aparkalekuena. Gure ustez irtenbide ona izango litzateke," adierazi digute.

Izan ere, bizilagunek argudiatzen dutenez, "krisi egoera dela eta, Muriasek ez ditu epe motzean etxebizitzak eraikiko".



Hipodromo etorbideko lur saila aparkaleku bezala erabiltzeko eskaera egin dute.

## GIZARTEA

### Rocioko Amaren kofradia elkarte da

Rocioko Amaren kofradia kultura elkarte bezala erregistratu da. Elkarteko kideek jakitera eman digutenez, urtarrilaren 29an kofradiak bilera egin eta elkarte bilakatzeko adostu zuten kide guztiak.

Elkarteko kideek azaldu digutenez, honen xedea senidetasuna, elkartasuna eta laguntza izango dira eta egoera zailen dauden pertsonak laguntzen saiatuko dira "beti ere, elkarteko giza baliabide eta baliabide ekonomikoak ahalbidetzen dutenean," azpimarratu dute.

Aipatu digutenez, Rocioko Amaren kofradiak 1995. urtetik Semblante Andaluz elkartearen barruan lan egin du, talde independente bezala eta honela jarraituko duela azaldu digute elkarteko kideek, "Semblante Andaluzeko adar bat izango gara".

Urte hauetan guztietan, kofradiak arazo ekonomiko eta sozialak dituzten taldeak, familiak edo pertsonak laguntzen saiatu dela eta Gobernu Kanpoko erakundeen bitartez, nazioartean arazoak dituzten herrietan ere haien harritxoak jartzen saiatzen direla adierazi digute. Honetaz gain, minusbaliotasuna duten pertsonekin edo pertsona adinduekin lan egiten duten elkarteekin lanean ari dela ere jakitera eman digu.

## Bigarren eskuko merkatuan parte hartzeko aukera dute herritarrek

Sanmarko Mankomunitateak Merka2sanmarcos bigarren eskuko azokaren bosgarren edizioa antolatuko du.

Ekimena otsailaren 25etik aurrera eramango da aurrera mankomunitatean eta hondakin sorerri murrizteko helburua du. Lasarte-Orian martxoaren 17an burutuko da Okendo plazan bigarren eskuko merkatua.

### Berrerabilera

Mankomunitateak azaltzen dutenez, "gaur egun badira gauza asko jada erabiltzen ez ditugunak; esaterako, arropa, liburuak, jostailuak, kirol-

materiala... Gehienak egoera onean daude; baina, hala ere, zaborretara bota edo kaxatan pilatzen ditugu".

Horrenbestez, hauek trukatuz, oparitu edo saldu daitezkeela gogoratzen dute Sanmarkotik. Eta era honetara, produktuen iraupena luzatu eta berrerabilera sustatu ahal izango dute herritarrek.

Ildo beretik, bigarren eskuko merkatuaren helburu nagusia mota guztietako erabiltzeko objektuen berrerabilera bultzatzea da.

"Horrela, sortzen dugun hondakin kopurua murrizten lagunduko dugu ekologia bideragarriko ekimen baten

bitartez," adierazten dute mankomunitateak.

### Postuak

Gauzak honela, mankomunitateak jakin arazten du Merka2sanmarcos azokan salmenta edo truke postua jarri nahi dutenentzat izena emateko epea ireki dela.

Hau doako zerbitzua da eta partikularrei, elkartei edota ikastetxeei zuzenduta dagoela gogoratzen du mankomunitateak.

Postua erreserbatu nahi dutenek [www.merka2sanmarcos.org](http://www.merka2sanmarcos.org) webgunean edo 943 670249 zenbakira deitu behar dute.



Erabiltzen ez diren eta egoera onean dauden gauzak saltzeko aukera ematen du azokak.



# Epaitegietara joko du udalak

► Somotora bideratutako diru laguntzak ikertzeko eskaera egitea erabaki zuen udal batzarrak

Asteartean burutu zen ohiko udalbatzarra. Honetan gai zerrenda zabala izan zen alderdiek aurkeztutako mozioek eraginda. Hala ere, erabaki eztabaidatuena EAJk Somotori buruzko afera salatze aurkeztutakoa izan zen. Udalak honen bitartez salaketa jarriko du kooperaziorako bideratutako diru laguntzen kudeaketa irregularrak ikertzean. Salaketak aurrera egin dezan aholkularitza juridikoa kontratatuko da.

Maidar AZURMENDI

**E**AJk egin zuen Udalak zerbitzu juridikoak kontratatze eskaera, asteartean ospatutako ohiko Udalbatzarrean aurkeztutako mozio baten bidez, Somotora bideratutako diru laguntzen inguruko salaketa epaitegietara eraman dadin.

Mozioaren nondik norakoa Estitxu Alkorta azaldu zituen eta honen hitzetan udalak berak aurkeztu behar du salaketa epaitegietan eta hau horrela egin ahal izateko, diru partida bat adostea proposatu zuen. Mozioa onartua izan zen EAJ, Bildu eta Plataformakoen aldeko botoekin eta PSE-EE eta PP-ren abstentzioekin.

## Epaitegietara

2011ko maiatzean itxi zen kooperaziorako diru laguntzen inguruko ikerketa batzordea. Honakoa PSE-EE eta PPren aldeko bozkek egin zen eta Alkortaren hitzetan ez ziren bertan nahikoa datu jaso. Besteak beste, uhar-tan oposizioak aurkeztu zuen ondorioen txostenean delitu izan zitezkeen mugimenduak jasotzen ziren, guztiak 2000. urtetik 2008ra bitartean gertatutakoak. "Hau guztia epaile batek ikertu behar duela uste dugu" azaldu zuen Alkortak.

Jesus Zaballos Lasarte-Oriako sozialisten ordezkaririk hitza hartu eta bere alderdiak, gai honi dagokionez, ez dituela oztopoak jarriko azaldu zuen. Ikertzen jarraitzeko trabarik ez dutela inoiz jarriko alegia. Delituak egotekotan, epaileak erabaki beharko duela argudiatu zuen Zaballosek.

## Ausardi falta

Aldi berean Alkortari, baita udal gobernuak kideei, leporatu zien oraindik salaketa jarri ez izana, ausardi falta egotziz. Zaballosen hitzetan hau ez da oraindik gauzatu, zerbitzu juridikoaren gastuak udalaren, hau da herritarren, diruarekin ordaindu nahi delako.

Zaballosen esanetan, Ezker Batuko Ricardo Ortega izan zen iazko martxoan Gipuzkoako fiskaltzari gaitzen inguruan ikertzeko eskaera egin zuen bakarra eta fiskaltzak ez zuen honetan delitu zantzurik ikusi.

Hala ere "epaitegietara eraman gaituen alderdi ausart bakarra izan da Ezker Batua. Mozioaren arabera maiatzetik zenituzten frogak, hamar hilabete pasa dira eta oraindik ez duzue salaketa gauzatu zergatik?" galdetu zuen Zaballos sozialistak.



Zenbait herritar gerturatu zen pleno aretora Udalbatzarreko nondik norakoak ezagutzeko.

Alkortak Fiskaltzak bere momentuan prentsan argitaratutako soilik ikertu zuela argitu nahi izan zuen.

## Mozioak

Bestalde, udal talde sozialistak bi mozioa aurkeztu zituen udalbatzarrean. Bata haur jaioberriak ustez bidegabeki edo irregularki adoptatzeari buruzkoa, onartua izan zen, EAJk honi egindako emendakinarekin eta bestea, udalak Foru Funtsa itzultzearen ingurukoa.

Aldundiak udalei urte beteko epean eskatu die Foru Funtsa itzultzeko. Lehen diru itzulketa hau hiru urtetan egin behar zen udalen eta Aldundiaren artean finkatutako

epeetan. Lasarte-Oriako PSE-EErentzat onartezina da diru hori guztia urte betean itzultzea eta Aldundiaren erabakiak udaletxe askoren "kolapsoa" eragingo duela uste du. Honi lotuta, Estitxu Alkortak argitu nahi izan zuen, Lasarte-Oriako udala gai dela egun Aldundiaren eskaerari erantzuteko izan ere, diru partida bat gordetzea erabaki zen eta ordainketak eskatutako epean egingo direla gaineratu zuen.

Bilduk berriz, Espainiako gobernuak egindako sektore publikoaren erreformari buruzko mozioa aurkeztu zuen.

Honekin udalei eta zahazki hauen kudeaketa autonomoan mugak eta ozto-

poak jartzen zaizkiela azpimarratu zuen Bilduk herritarren ongizatean eragin zuzena daukala argudiatuz. Taldeek onartu zuten PPren kontrako botoarekin.

## Sahararekin bat

Azkenik, "Euskal Herriko lagunak mendebaldeko Saharakoekin bat" elkarteak, Saharar herrian gertatutako zenbait jazapen eta gertaeraren inguruko gaitzespenari buruz egindako mozioa aurkeztu zen eta alderdiek honakoa onartu zuten PP eta Plataformaren abstentzioekin.

Saharar herriarekin elkartasuna adierazi nahi izan zuten erabaki honen bidez alderdiek.

## Autobus zerbitzua sortu da

Autobus zerbitzu publikoa sortzea erabaki zuten aho batez udal ordezkariek zenbait aldaketa tarteko.

Pablo Barrio alkateak azaldu bezala, zerbitzua modu "alegalean" zegoen martxan eta egoera hau legezartzeko egin da lan. Oraindik guztiz adostuta ez badago ere, zerbitzua zenbait aldaketarekin sortuko da.

## Aldaketak

Ana Isabel Prietok eraman ditu arlo honetako negoziatioak, autobusak zerbitzu gutxiago egingo ditu baina ordutegi zabal bat eskainiz,

hau da, bidaiari gehien egoten den ordu tartean bermatuko dira zerbitzuak. Puntutan eta tertidan abiatuko dira autobusak eta hamalau zerbitzu egingo ditu guztira autobusak.

Bi ibilbide adostu dira, eguneko lehenengoa berezia izango litzateke. Hau 7:40etan aterako litzateke Kotxerasetik institutura ikasleak eramateko kontrako ibilbidea eginez. Honako ordutegiak aurreikusten dira, lehen 7:30, 8:00 eta 8:30etako autobusekin, ondoren bigarrena 10:30-13:30ak arte ordu erdiro, hirugarrena 16:30 eta 17:00tako autobu-

sak eta azkenik, 19:30 eta 20:00etan.

Horretaz gain, autobus txartela merkeagoa izango da, 60 zentimo, orain arte 1 euroko kostua zeukan. Lurraldebusaren onurak ezingo dira hasiera batean eman, izan ere ez da zerbitzua honen baitan sartzen nahiz eta Aldundiarekin negoziatioek aurrera jarraitzen duten zerbitzua Lurraldebusarena izan dadin.

Azkenik Prietok azpimarratu zuen zerbitzuaren gastua nabarmen merketzea lortu dela aipatutako neurrie esker eta hala ere, kalitateko zerbitzu bat bermatzen dela.



# Egitarau zabala inauteri astebururako

- *Herritarrei egun hauetan balkoiak globo eta zapiekin apaintzeko deia egin diete antolatzaileek*
- *Zuzi olinpikoa larunbat eguerdian piztuko da Okendo plazan burutuko den ekitaldi ofizialean*

Musikarekin hasi dira ohi bezala Lasarte-Oriako inauteriak. Udaleko Musika eskolako ikasleek kontzertu bufoa eskaini zuten bart Manuel Lekuona kultur-etxean. Gaurkoan, arratsaldean herriko ikastetxeek ospatuko dituzte inauteri festak 15:00etatik aurrera eta bihar kirolari olinpikoek hartuko dituzte herriko kaleak eguerditik hasi eta gaueko ordu txikietara arte. Igandean, Euskal inauterierien konpartsa ibiliko da herriko kaleetan barrena.

Maider AZURMENDI

**D**agoeneko hasi da festa. Atzoko kontzertu bufoak eman ziren hasiera ofiziala herriko inauterieri. Udaleko musika eskolako ikasleak fin aritu ziren Manuel Lekuona kultur-etxean eskaintako emanaldi handian.

Gaurkoan eskoletako haurren txanda izango da. 15:00etatik aurrera Sasoetan eta Garaikoetxean inauteri festak egingo dituzte.

Lehenek, olinpiada festa burutu ondoren txokolate jana egingo dute. Garaikoetxeako ikasleek berri, euskal inauteria izango dute ardatz euren dantza eta ospakizunerako.

## Parte hartzea sustatu

Amalur trikiti eta pandero eskolakoak arduratuko dira larunbat goizean herriko kaleak girotzeaz. Hauek 11:30ean parte hartzaile guztiekin egingo dute bat eta kalejiran abiatuko dira herriko kaleetan barrena inauteri giroa txoko guztietara hel dadin. Eguerdian, Lasarte-Oriako Olinpiar Jokoak inauguratzeko ekitaldi berezia egingo da Okendo plazan eta bertan olinpiar zuzia piztuko dute bildutako kirolariak. Ekitaldi ofiziala Gauerdi txarangak girotuko du.

Txarangarekin batera Olinpiar zuziak ere ibilbidea egingo du herrialde ezberdinetatik iritsitako kirolarien eskutan eta herriko taberna batzuetan egingo du geldialdia, Artizar, Dakara, Ilargi, Kantoi, Galicia, Buenetxea, Abend, Yolanda, Insausti eta Avenida tabernetan hain zuzen ere.

Hauetan eta Trumoi tabernan, pintxo poteo olinpikoa egin ahal izango dute kirolari trebeek. Antolatzaileek mozo-rotzeaz gain, ekimen honetan



Musika eskolako ikasleek kontzertu bufoa eskaini zuten Manuel Lekuona kultur-etxean.

parte hartzera animatu nahi dituzte herritarrek.

## Haur eta helduentzat

Okendo plazan, 12:30etatik aurrera, "Zumetarrak" eta Zakilbeltzen taldeen emanaldiak ikusi ahal izango dira eta hauen ondoren, Ttakunek antolatuta, haurrek herri kirolean aritzeko aukera izango dute. Hauetan lasai ibiltzeko elkarte-ko begiraleak egongo dira txikienei laguntza emateko prest.

14:30ean herri bazkaria egingo da Okendo plazan jarritako karpan eta hau ABIBA taldearen musikarekin girotuta egongo da festa giroa eten ez dadin. 16:30ean emango zaio hasiera konpartsen desfile handiari. Honetan parte hartuko dute Zabaleta, Amalur, Ttakun, Jalgune, Zumaburu ikastetxeak, ikuskizun eta mozo-roekin.

Desfilearen ibilbidea iragokionez, Okendo plazan bertan hasiko da eta Kale Nagusitik Zumaburura abiatuz, jubilatuen elkartearen egingo du lehen geldialdia eta Arrieskalle- ta elkartearen parean berriz

bigarrena. Tajamarreko biribil-gunea hartuta, Hipodromo etorbidera abiatuko da eta hortik Pablo Mutiozabal eta Geltoki kalean barrena egingo du desfileak 19:00ak aldera Okendo plazan bukatzeko.

## Etenik gabeko festa

Desfilea bukatzearekin batera festa ez du amaierarik izango. 19:00etatik hasita haur eta gazteentzako ABIBA taldearen disko jaia izango da Okendon eta jarraian, 20:00etan erromeria hartuko du bere lekua. Erromeria Amalurrek gidatuko du 22:00ak arte Olinpiar karpan. Afaltzeko atsedean labor bat egin eta 23:00etatik aurrera oraindik dantzan jarraitu nahi dutenek aukera izango dute ABIBAren disko festarekin.

Bestalde, Trumoi tabernak kontzertuak antolatu ditu larunbaterako ere, beste giro eta musika motak gustuko dituzteentzako. 18:00etatik aurrera Makulu Ken, Human Disaster eta Bar Remigio taldeen kontzertuak izango dira eta 23:00etatik aurrera berriz, DJ Punk, Rock, Reggae eta Ska festa egingo da. Jalgi kafe antzokian ere 23:30etatik

aurrera Salda MR Dubbin DJ-ak funk, salsa eta afrikar musika jarriko du.

## Euskal inauteria

Igandean emango zaio jarraipena egitarau zabalarari. 12:00etan Euskal Inauteri konpartsak hasiko du bere ibilbidea kotxerasetik abiatuta herriko kaleetan barrena hainbat geldialdi egin- da Okendo plazan amaitezko. Arratsaldean ABIBAK disko jaia egingo du karpan hainbat jolas eta opariren banaketarekin. 18:15ean euskal inauterietako konpartsak ibilbidea egingo du berriz ere eta 19:30ean Ilargi tabernaren parean, panpina erreko dute. Honekin batera agur esango zaiei 2012ko inauteri olinpikoari.

Biyak-Bat zaharren biltokiak ere inauterierekin bat egin eta 18:00etatik aurrera mozo-rotzeaz txapelketa ospatuko du igandean dantzaldi eta guzti.

## Udalaren bandoa

Udalak asteazkenean bandoa kaleratu zuen inauterietan parte hartzeko dei eginez. Honetan etxeko leihoak eta balkoiak telaz eta globoz apaintzeko proposamena luzatzen du Taxio Arrizabalaga, Lasarte Oriako Udaleko Gazteria, Festak eta Kirola Batzordeko lehendakariak. Honekin batera inauterietan "aktiboki parte hartzera" gonbidatu nahi izan ditu lasarteoriatar guztiak.

## Inauterietako egitaraua

Larunbata, 18

- 12:00etan**, JOKO OLINPIKOEN HASIERA EKITALDIA. Okendo plazan.
- 12:30ean**, TAPEO OLINPIKOA gauerdia txarangarekin.
- 12:30ean**, IKUSKIZUNAK eta haurrentzako HERRI KIROLAK. Okendo plazan.
- 14:30ean**, BAZKARI HERRIKOIA. Okendo plazan.
- 16:30ean**, DESFILEA herriko kaleetatik.
- 19:00etan**, ABIBA disko jaia. Okendo plazan.
- 20:00etan**, ERROMERIA, AMALUR eskolaren esku- tik. Okendo plazan.
- 23:00etan, ABIBA disko jaia. Okendo plazan.
- 23:30ean, SALDA MR DUBBIN DJ-ak funk, salsa, afrikar musika. Jalgi tabernan.

Igandea, 19

- 12:00etan**, EUSKAL INAUTERIAK herriko kaleetatik.
- 13:00etan** eta **17:00etan**, ABIBA tabernan inauteri-giroa. Okendo plazan.
- 18:15etan, EUSKAL INAUTERIAK herriko kaleetan.

*Herritarren parte hartzea sustatu nahi da mozo-rotu eta antolatutako egitarauarekin bat egin dezaten*

## OHARRAK.-

## ATLETISMOA.-

## Helduentzako igeriketa ikastaroa

Otsailaren 21etik apirilaren 2ra, erdi eta hasiera mailako helduentzako igeriketa ikastaroa eskainiko dute udal kiroldegian.

Astean hiru saio izango dira, astelehenean, asteazkenean eta ostiraletan, 20:30etatik aurrera. Izena emateko azken eguna otsailaren 22a, astezkena da.

Ikastaroak 105,70 euro balio du eta kiroldegiko bazkide direnentzat 58,70 euro.

Informazio gehiago nahi izanez gero kiroldegiko bulegora hurbildu edo 943 376 182 telefonora dei dezakezue.

## Txapelketa eta baimenak

Buruntz-Azpi elkarteko ehiza txapelketa Buruntza mendiko magaletan burutuko da, otsailaren 25ean, igandean, goizeko 9:00etatik aurrera.

Elkarteko bazkideek, zein ehiztari federatuek parte hartu dezakete.

Lehiaketan izena emateko epea irekia dago datorren otsailaren 23 ostegunera bitartean.

Era berean, elkarreak jakin arazten du, arrantza baimenak berritzea astearte eta ostegunetan arratsaldeko 19:30etik 20:30era bitartean eskatu ahal izango dela Buruntz-Azpi elkarteko egoitzan.

## Larrañaga eta Eugi, Euskadiko txapeldun

LOKEko atletak zazpi domina eskuratu dituzte maila desberdinetan

**LOKEko atletak kade-te, jubenil eta junior mailako Euskadiko txapelketan izan dira asteburu honetan eta domina uzta ona lortu dute. Irati Larrañaga eta Maria Eugik lortu zuten Euskadiko txapeldun titulua eta beste lau talde kide ere proba desberdinetako podiumean egon ziren.**

**Nerea EIZAGIRRE**

Irati Larrañaga eta Maria Eugi LOKEko atleta gazteak izan ziren asteburuan Donostian Euskadiko txapelketan urrezko domina eskuratu zutenak.

Irati junior mailako jauzi hirukoitzeko proban lortu zuen garaipena. Jauzi bakaurrean 11,21 metroetara iritsi zen eta urrezko dominaz gain, Espainiako txapelketarako txartela eskuratu zuen.

Maria Eugik, berriz, 300 metro proban eskuratu zuen garaipena. Kadete mailako lasterketan erraz gailendu zen.

Zilarrezko postuak ere izan zituzten LOKEko gazteek hainbat probatan.



M. Rekondo, M. Eugi, I. Rodriguez eta A. Galardi atleta gazteek dominak lortu zituzten. Argazkian, I. Larrañaga eta E. Busto falta dira.

**Zilarrezko dominak**

Itoitz Rodriguezek 300 metroko lasterketan azken metroetara arte borrokatu zen buruan egoteko.

Maider Rekondok pisu jaurtiketa proban izan zen bigarren. Bosgarren jaurtiketan lehenengo jarri zen 9,44 metro jaurti ostean, tamalez azken jaurtiketan Leire Gorrixtategi bizkaitarrak postua kendu zion 9,57 metroko marka egin eta gero.

Eneritz Busto ere izan zen txapeldun ordeetako bat. Altuera proban izan zen eta

soilik hiru zentimetroengatik ez zuen lehenengo postua lortu.

Azkenik Ane Galardi dago. Anek luzera jauzian eta jauzi hirukoitzean lortu zituen dominak, zilarrezkoa eta brontzezkoa hurrenez hurren. Luzerako proban 5,13 metroko jauzia egin zuen saiakeran eta jauzi hirukoitzean, berriz, azkeneko jauzian lortu zuen 10,51 metroetara iristea.

Bestalde, Eneritz Busto gazteak luzera jauzian 4,46 metro egin eta 4. postuan amaitu zuen lehia.

LOKEko Saioa Olasagastik ere 300 metroko lasterketako sailkapen saioan 4. postua eskuratu zuen, baina horrek ez zion finalerako balio izan.

**Zorterik ez**

Jubeniletan parte hartu zuten Endika Larrañaga eta Jon Ander Bruño gazteek ere ez zuten zorte izan 400 metro proban. Jon Ander deskalkifikatua izan zen eta Endikak ez zuen marka ona egin.

Aste honetan senior mailako Euskadiko txapelketan izango dira Donostian.

## KIROL AGENDA.-

**FUTBOLA**

Larunbata 18

Mintxeta, Elgoibar, 12:30ean

Elgoibar-Ostadar

I. kadetea, igoera

Martutene, Donostia, 15:30ean

Martutene-Texas Lasartearra

I. Erregionala, kopa

Michelin, 16:00etan

Ostadar-Urki I. Erregionala, igoera

Igandea 19

Mintxeta, Elgoibar, 12:30ean

Ostadar-Behobia Alebin kopa

**ARETO-FUTBOLA**

Larunbata 18

Kiroldegia, 17:30ean

Buruntza K.T.Aldaz H. K. -Soloarte Nazional III. maila

Etxebarriko Udal kiroldegia, 20:00etan

Kukuia Etxebarri-ISU Leihok Euskal Liga

**PILOTA**

Ostirala 17

Sahatsaga, Getaria, 18:00etan

Gure Txerri-Intza Errendimendu

txapelketa, eskuz binaka infantilak

Larunbata 18

Ikaztegieta, 11:00etan

Intxurre-Intza Udaberri txapelketa, eskuz binaka, I. nagusia

Michelingo pilotalekua, 16:00etan

Intza-Gazteleku

Errendimendu txapelketa, eskuz binaka 2. urteko alebinak

Michelingo pilotalekua, 16:00etan

Intza-Aurrera Saiaz Udaberri txapelketa, eskuz binaka, I. kadetea

Michelingo pilotalekua, 17:30etan

Intza-Markina Euskal Herriko txapelketa, eskuz binaka kadeteak

**ATLETISMOA**

Larunbata 18

Antonio Elorza belodromoa, Donostia.

10:00etan

Landaberri eta Sasoeta

ikastetxeetako atleta gazteek

benjamin eta infantil mailako

txapelketako saio berrian parte

hartuko dute.

Antonio Elorza belodromoa, Donostia.

16:30ean

Herriko eta LOKEko atletak senior

mailako Euskadiko txapelketan

parte hartuko dute.

Igandea 19

Antonio Elorza belodromoa, Donostia.

10:15ean

Herriko eta LOKEko atletak senior

mailako Euskadiko txapelketan

parte hartuko dute.

**JUDO**

Larunbata 18

Bekoerrotako kiroldegia, Lezo, 11:00etan.

LOKEko gazteek junior mailako

Euskadiko txapelketan lehiatuko

dira.

Igandea 19

Iruia, 11:00etan.

LOKEko Asier Sagastik Espainiako

txapelketako sailkapen saioa du.

**SANBOA**

Larunbata 18

Abechuko kiroldegia, Gasteiz, 16:00etan.

LOKEko gazteek Euskadiko Sanbo

txapelketa dute.

**DUATLOIA**

Larunbata 18

Sopela, 16:15ean.

Herriko hainbat duatletek Sopolako

Duatloian parte hartuko dute.

**IGERIKETA**

Larunbata 18

Galdakao, 10:00etan eta 17:00etan

Buruntzaldea IKTKo gazteak

Infantilen Euskal Herriko Neguko

Txapelketan izango dira lehiatzen.

Hernani, 16:00etan

Buruntzaldea IKTKo benjamin eta

alebin mailako gazteetxoek Kirol

Zehaztasun Ligako 2. jardunaldian

parte hartuko dute.

Igandea 19

Galdakao, 10:00etan eta 17:00etan

Buruntzaldea IKTKo gazteak

Infantilen Euskal Herriko Neguko

Txapelketan izango dira lehiatzen.

**ERRUGBYA**

Ostirala 17

Michelin, 19:00etan.

Beltzak Ostadar Jalai taldeko maila guztiak entrenamendua izango dute.

**BOLA-JOKOA**

Igandea 19

Aiorga, 10:00etan.

Ostadar SKT-ko kideek bikotekako

txapelketako azken jardunaldian

parte hartuko dute.





# Agenda

Otsailaren 17, 18 eta 19an, Lasarte-Oria



## Lasarte-Oria hiri olinpiko bihurtuko da

Inauteriak iritsi dira!!! Gaur Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetan jaialdiak izango dira. Eta bihar hiri olinpiko bilakatuko da Lasarte-Oria, nazioarteko atletak etorriko dira gure herrira. Arratsaldean, berriz, desfile erraldoia egingo da herriko kaleetan barrena. Gauean, ordu txikieta arte parranda egiteko aukera izango da tabernetako kontzertuak edo ABIBA disko jartzailearekin. Eta igandean Euskal Inauteriek 30. urteurrena ospatuko dute. Mozorroak eta alaitasuna izango dira nagusi Lasarte-Orian hiru egun hauetan.

## Antzerkia

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
Otsailaren 24an, 20:30ean

Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburuk Bodologuak antzerkia eskainiko dute. Euskaraz. Sarrera internet bidez, 5 euro eta leihatilan, 6 euro.



## Lasarte-Oria Zinea

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**  
Otsailaren 20an, 19:00etan

Danok Kide elkarteak antolatutako Urpeko Zine Zikloaren hirugarren saioa. Gaztelaniaz. Doan.

Otsailaren 23an, 21:30ean

Okendo Zinema taldearen eskutik, Osteguneko zinean "Un cuento chino" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 4,40 euro.



Otsailaren 26an, 17:00etan

Haurrentzako zinearen barruan, "Alvin y las ardillas 3" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 3,40 euro.

Otsailaren 26an, 19:00etan

Okendo Zinema taldearen eskutik, helduentzako zinea atalean "Un cuento chino" filma ikusgai izango da. Gaztelaniaz. Sarrera, 4,40 euro.

Otsailaren 27an, 19:00etan

Danok Kide elkarteak antolatutako Urpeko Zine Zikloaren azken saioa. Gaztelaniaz. Doan.

## Musika

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**  
Otsailaren 24ean, 23:30ean

Wasabi Projekt taldearen eskutik jazz

eta funk doinuak entzungo dira.

**ABEND KAFE-ANTZOKIA**  
Otsailaren 24ean, 00:00etan

Metalmania eta Dark Code taldeen metal kontzertua entzuteko aukera. Sarrera 10 euro.



## Erakusketa

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**  
Otsailaren bigarren hamabostaldian Rudy artistaren margoen erakusketa ikusgai izango da.

## Bakarrizketa

**DONEGA TABERNA**  
Otsailaren 23an, 22:30ean

Kultur kalea zikloaren barruan, Mario Simancasek bakarrizketa eskainiko du.

## Usurbil Musika

**SUTEGI KULTUR-ETXEA**  
Otsailaren 21an, 18:00etan

Zumarte-Txiki eta Zumarte abesbatzen kontzertu berezia izango da.

**MIKEL LABOA PLAZA**  
Otsailaren 25an, 19:00etan  
Usurbilgo Kantu Taldeak kantu-jirra egingo du.

## Sarean

The screenshot shows the txintxarri website interface. At the top, there's the logo and navigation tabs. Below, there are sections for 'Oharrak' (News) with bullet points, 'Guardiako farmaziak' (Pharmacies), and 'Zorion agurrak' (Congratulations). A main article titled 'Ohiko udalbatzarra gaur 18:30ean' is featured, along with a video player and social media links.

## txintxarri.info berria

Txintxarri aldizkariak itxura aldatuta izan duen moduan, web orrialdea ere aldatuko dugu. Aurki berrikuntza ugari dakartzan orrialde berria jarriko dugu martxan.

Albisteak, elkarrizketak eta erreportajeak landuko ditugu bertan eta aldizkariaren osagarri izango da. Baina hemendik aurrera, hitzak baino irudiek izango dute garrantzia gehiago. Hau bideoen bitartez egingo dugu.

Gainera, herritarrek albiste eta iritzi artikuluei iruzkinak egiteko aukera izango dute orrialde berrituan eta atal berriak sortuko ditugu.

Era berean, sare sozialetara hedatuko da txintxarri.info eta egun dugun twitter-az gain, facebook-a ere izango dugu.

## Hemeroteka

### Duela 1000 ale

Txintxarri aldizkariaren lehenengo zenbakia argitaratu zen. Euskara sustatu eta indar berritzeko asmoarekin jaio zen Ttakin kultur elkartearen baitan. Aitzindari izan zen Txintxarri, Buruntzaldean euskara hutsean kaleratzen zen lehenengo aldizkaria izan baitzen.

Lasarte-Oriako Udaleko Euskara batzordearen laguntzaz eta herriko komertzioei esker finantzatu zen. Lan talde finkoa eta kolaboratzaile ugari izan ziren lanean proiektu honetan eta 1993ko urrian argitaratu zen lehenengoz.

Herritarren artean ikusmira sortu zuen aldizkariak kalera atera baino lehen eta lehenengo azalean egoera hori irudikatzen da. Herriko bi gaztek, Kris Alvarez eta Arkaitz Izagirrek aldizkari berria gogoz irakurtzen dute.

Aldizkariak zituen hemezortzi orrialdeetan herritarren jakin nahia ase dezakeen informazio ugari aurki dezakegu, hala nola, agenda, kirol albiste, elkarrizketa eta herriko elkarte eta erakundeei buruzko berriak.

Era berean, argazki zaharren lehiaketa zegoen eta komikia ere bazuen lehenengo ale horrek.

Hau guztiak gain, atzera begira bat ere egiten zuten eta herriaren garapena edo garai aldatetako irudikatzen ziren bertan. Egundak hau eraldatu eta Txintxarri 1000 ale hauetan izan diren berri edo bitxikeriak ekarriko ditugu gogora tarte honetan.



Felix Telleria Dantzaria eta Euskal Inauteriaren antolatzailea

# “30 urtetako jantziak aterako ditugu”

■ Lasarte-Oriako Euskal Inauteriak 30 urte bete ditu aurten ■ Igandean, betiko dantzak egingo dituzte ohiko ibilbidean, Kale Nagusian barrena, Okendo plazaraino

*Euskal Inauteria igande eguerdi eta arratsaldean ibiliko da herriko kaleetan. Aurten 30. aldiz aterako da, eta urte hauetan konpartsak atera dituen jantzi guztiak berriro erakutsiko dituzte. “12-14 dira guztira. Bigarren urtean atera ginen zaku eta zintzilikatutako trapuekin, eta bi urtean behin edo aldatu ditugu trajeak”, kontatu digu Felix Telleria antolatzaileak. Gainera, 30 urtean dantza ikuskizuna antolatzen aritu den taldeak lan hori Ttakunen esku utziko du datorren urtetik aurrera.*

Jon ALTUNA IZA

**E**uskal Herriko hainbat tokietako inauterietako dantzak 30 urtetan eskaini dituzte kalerik egin gabe herriko dantzariak, Lasarte-Oriako kaleetan, inauterietako igandean, eguerdi eta arratsaldez. Felix Telleriak eman dizkigu xehetasun gehiago.

**30 urte, badira urte batzuek...**

1982 sortu genuen Euskal Inauteria, Sorgin Dantza bizkortzeko edo indartzeko ideiarekin.

**Beraz Sorgin dantza txertatu zenuten inauterietako beste dantzekin batera...**

lbargi taldean ibiltzen ginen orduan, urte hartan ateratzen hasi ginenetik 10 urte betezen zirenez, 1948an Orian dantza egin zutenei omenaldia egin zitzaizen ekainean eta urte horretan hartu genuen beste bide hori ere: inauterietan dantza egiten hasi... eta 30 urtean egin da.

Gu Sorgin dantzarekin hasi ginen eta gero, dantza ikasten ari ziren ikastolako haurren gurasoekin batera, erabaki genuen inauterietako beste dantza batzuek ere gehitzea.

**Beti igandetan atera zarete zuen karrozarekin...**

Bidea gutxi gorabehera berdina izan da 30 urteotan. Dantzariak aldatu dira, batzuek utzi egin dute, beste batzuek hasi... Urtero ez da Sorgin dantza egin, baina beste dantzak bai.

**Inauterietako zein dantza dira?**

Denetarik, Nafarroakoak, Lapurdikoak, Behe-Nafarroakoak, Gipuzkoako batzuk...

**Eta horien barruan Sorgin dantza, ikuskizunaren parte garrantzitsua al da?**

Urtero ez da egin, jenderik ez zelako. Iaz atera ginen, aurten egiteko asmoa dugu, baina ikusiko da, ez dakit segurua. Gazte denak ez daude prest.

Azken urteotan gauza berriak antolatu dira inauterietan, baina, lehen, zuen kalejira elementu garrantzitsuenetarikoa izango zen, noski...

Bai, gaur egun, larunbateko kalejirak indar handia hartu duela iruditzen zait. Lehen ere ateratzen ziren larunbatean, Erketz-ekoak, eta taberna batzuetakoak ere bai, baina bakoitza bere aldetik. Gu beti igandean.

**Arrakastarik izan al duzue?**

Batzuetan gehiago, bestetan gutxiago. Irekia da eta, nahi duena etortzen denez, izan dira gora beherak, baina ehun pertsona inguru beti atera gara.

**Nafarroako inauteriak dira ezagunenak, hango ohitura eta pertsonaiak ekarri dituzue hona, ezta?**

Bai, lan asko egin du Alejandro Romok. Dozena erdi bat buruhandi prestatu ditu euskal inauteriaren bere ideia edo ikuspuntuarekin; lan asko egiten dute karroza prestatzen ere; Txomin Iradi eta koadrila aritzen dira horretan. Karroza gainean garrantzitsuena, beti eramaten duguna, Sorgin dantzako burua da. Musika zuzenean jotzen dugu, gure karrozaren ez dago diskorik, esku soinu, txirula,... baizik. Beraz musikariak ere karroza gainean doaz eserita, eta hauen inguruan saiatzen gara karroza koloretsua osatzen.

**Urtero aldatzen al duzue karroza?**

Bi urtetik behin edo aldatzen da. Burua, ez, burua beti joaten da.

Duela 15 bat urte, Aralar-ko San Migelen abuzturen 15 batean ikusi genuen nola ateratzen ziren dantzan, asto



Felix Telleria, Euskal Inauterirako jantzita.

batekin, txorizoak banatuz,... eta esan genuen, “hau inauterietan ondo logeko”. Ordutik asto bat eta gurdia eramaten ditugu; txorizo, txistorra eta odolkiak banatu. Patxi Larrañaga harakinari eskatu genion eta dohainik ematen digu.

**Betiko ibilbidea egingo al duzue?**

Bai, Kotxerasetik aterako gara eguerdian, Biyak Bat erretiratu elkarte eta Larrañagaren harategiaren aurrean egingo dugu lehen geldiunea, gero bigarrena, Udaletxe parean, hirugarrena Udal Euskaltegi

parean, eta Okendo plazan bukatu 13:30-14:00etan gutxi gora behera. Pare bat orduko buelta. Gero Goiegina bazkaldu eta arratsaldeko 18:30etan Jubilatuetatik plazara joango gara, dantza egin eta panpina erreko dugu. Egun osoan hor ibiltzen da hartza lotuta, batera eta bestera... Azkenean sare batekin harrapatu eta erre egingo dute.

**Aurten berezia izango da, zergatik?**

30 urte bete direlako batetik eta bestalde, guk antolatutako dugu azken urtea izango

delako. Aurtengoa egin eta Ttakunen esku uztea erabaki genuen. Denborarekin, gainera. Elkarte prest badago hor izango dituzte datorren urtean, plataforma, trapu eta beste. Guk segituko dugu urtean zehar dantzan jendeak ezezkoa esan edo aspertu arte, baina antolatzeari utzi egingo diogu.

Gu ez gara elkarte bat, ez ezer. Hiru gara eta pentsa jada, 70-80 urte dituzte besteek.

Ttakunen, gainera, indar gehiago emango dio eta hori pentsatu genuen. Okerrena guk utzi eta amaitzea izango litzateke eta.

**Beste berezitasunik izango al du aurtengoak?**

Ez, aurreko urteetako jantziekin aterako gara eta betikoa egingo dugu, betiko dantzak, betiko ibilbidea,... agian detailaren bat izango da. Ideia horrekin gaude.

**Ikastolan ere egiten dute orain euskal inauteria...**

Bai haurrek ondo ezagutzen dute euskal inauteria eta inauteriko pertsonaiak. Herrian kutsua dute eta ohitura hau ez da galduko.

**Egon al zara Nafarroan Inauterietan?**

Bai Ituren eta Zubietan, aste-lehen eta asteartean. Aipagarria da, Ttuntturroak iristen direnean errespetu handia izaten ditela. Sartu, buelta egiten dute eta joaten direnean hasten dira besteak euren saltsarekin, ikusleei denetarik botatzen,... hara ez dago dotore dotore joaterik.

.....  
**“Gu ez gara elkarte bat, ez ezer. Hiru gara eta adinekoak.**

**Ttakunek, gainera, indar gehiago emango dio eta eurei uztea pentsatu genuen. Okerrena guk utzi eta amaitzea izango litzateke eta**